

CAMISETA BANGLADESH

litros de agua: 113 L de agua

Emissiones de CO₂: 2465 kg

Condiciones laborales: Explotación laboral. Más de
4 millones de personas están explotadas, sobre
todo mujeres

Gure arropa,
gure
erantzukizuna:
Aztarna
Soziohidrikoa

Hezkuntza zentroa eta lekua:
Colegio Lourdes Fuhem
Madrid

Gauzatze-data:
07/05/2021

Harremanetarako pertsona:
Carlos Díez Hernando

Harremanetarako datuak:
c.diez@colegiolourdes.fuhem.es

Ikastetxearen testuingurua, hezkuntza-maila
eta ikasleen profila:

Lourdes ikastetxeak Hezkuntza Administrazioarekin hitzartuta dauzka bere unitate eta eskola-etapa guztiak. Ikasleen gehiengo handia La Latina barrutiko hainbat gunetatik dator. Halere, Batxilergoan ohikoa da Madrilgo beste barruti batzuetako ikasleak etortzea. Oso hezkuntza-komunitate aberasgarria daukan eskola da, oso anitza baita, eta hori da eskolaren ezaugarrietako bat. Eskolak historia luzea dauka inguruan bilerak, hitzaldiak edota orotariko ekintzak gauzatzeko topaleku gisa. Gazte-elkartek, GKE-ek eta beste erakunde batzuek

maiz erabiltzen dute. Jai- edota kultura-ekitaldiak auzoari irekiak dira, eta berarekin parte hartzen da ingurune hurbilaren zainketan.

Jarduera honetan parte hartu zuten ikasleak DBHko 4. mailako ikasleak izan ziren. Pandemia zela-eta, talde txiki bat genuen, 15 ikaslekoa. Horiek antolatu zuten jarduera eta DBHko 2. mailako ikasleekin gauzatu zuten, 4 lerro dituen, beraz, guztira 100 ikasle izan ziren.

Esperientziaren deskribapen laburra

Zein izan zen esperientzia?



DBHko 4. mailako ikasleek stand bat antolatu zuten Lourdes Ikastetxean, eta honela izendatu zuten: Gure arropa, gure erantzukizuna: aztarna soziohidrikoa. Stand horretan, DBHko 2. mailako gainontzeko ikasleei etxetik arropak eramateko gonbidapena luzatzen zitzairen, neurtu ahal izateko arropa horiek zein eragin sozial eta ekologiko daukaten planetan eta fabrikatzen dituzten emakumeen bizitzan.

Horretarako, standean taula bat zegoen; bertan agertzen zen material batzuen (kotoia, artilea, poliesterra, elastanoa, lihoa, etab.) eta horietako bakoitzaren pisu jakin bat fabrikatzeko behar diren ur litroen eta CO₂ kg-en arteko erlazioa. Adib. 300 g kotoi - 6 kg CO₂ - 400L H₂O.

Parte hartu zuten ikasleek jasotako arropak pisatzen zituzten, horien etiketak irakurri eta osatzen dituzten materialen ehunekoak idazten zituzten. Informazio horrekin eta eskuragarri zituzten taulekin, hiruko erregelak erabiliz kalkulatu zuten zenbat kg CO₂ eta zenbat litro ur behar diren arropa horiek egiteko.

Ondoren, jantzi bakoitzaren fabrikazio-herrialdea aztertzen zuten. Zein lan-baldintza daukate fabriketan lan egiten duten emakumeek? Zein lan-eskubide urratzen dira? Jantziaren ingurumen-inpaktua txikiagoa izango al litzateke kontsumitzen den lekutik gertu fabrikatuko balitz? Zenbat CO₂ isurtzen da bere garraioan?

Informazio horrekin guztiarekin, standeko ikasleek kartulinazko etiketa bat betetzen dute, jantziaren jabeak etxera eramango duena.

Zein zen nire helburua?

- Kontsumitzen dugun arroparen ingurumen- eta gizarte-inpaktuari buruz hausnartzea.
- Ohartzea zein erabaki dauden gure esku planeta eta emakumeen gorputzak eta bizitzak zaintzeko.

Zer egin nuen eta nola?

Prestakuntza-saioen ondoren, hausnarketa-jardunaldi bat egin genuen. Bertan mahai-gaineratu ahal izan zen landutako guztitik zein alderdi gertatu zitzaizkien deigarrien.

Talde osoa ados zegoen arroparen kontsumoa gai interesgarria zela euren adineko gazteekin lantzeko. Izan ere, behar zutena baino arropa gehiago kontsumitu zuten guztiek, jakin arren euren armairuetan nahikoa jantzi zituztela. Horrez gain, loturarik eza sentitzen zuten kamiseta bat online erostean egiten den klikaren eta klik horrek beste pertsonen bizitzetan eta planetaren zainketan zituen ondorioen artean.

Jarduera bat egin ahal izatea proposatu zen ondorio horietan sakontzeko eta, aldi berean, ikasgelan egiten ari ziren hausnarketa hori Lourdes Ikastetxeko gainontzeko ikasleei hurbiltzeko. Stand bat egitea proposatu zen DBHko 2. mailako ikasleei jantzi bat eramateko eskatzeko eta trukean etiketa sozioanbiental bat emateko. Etiketa horretan adieraziko litzateke zein eragin daukaten jantzi horren fabrikazioak eta garraioak planetan eta emakumeen gorputzetan.

Horretarako, beste saio bat egin genuen eta ikasleak bi taldetan antolatu ziren. Talde batek taulak egin zituen pisu jakin batean oinarrituta material desberdinen ur litroen kontsumoa eta CO2 isurpena kalkulatzeko. Beste taldeak emakumeen lan-baldintzei buruzko informazioa bildu zuen arropa ekoizten duten herrialdeen erakusketa adierazgarri batean.

Jardueraren egunean bi stand jarri ziren ikastetxean. Horietan baskula, kartulinak, kalkuluak egiteko taulak eta errotiladoreak zeuden. Gainontzeko ikasleak standera hurbiltzen ziren euren arroparekin. Jantzia pisatu eta, ondoren, aztertu egiten zen jatorriaren eta osatzen zuen materialaren arabera.



Zer lortu dut/dugu?

- DBHko 4. mailako ikasleek, ezagutza jasotzeaz gain, hausnarketa eta eratze kolektiborako espazioak sortu dituzte. Horri esker, prozesuaren jabe egin eta ikasitakoaren transmititzaile izan dira.
- Jasotako ikasketa ikasgelako paretetatik haratago doa eta eragin biderkatzailea dauka, jende gehiagorengana iristen baita (beste ikasturte batzuetako ikasleengana).

Nire ustez, eskola-egiturako eta testuinguruko zein elementu izan dira lagun- garri edo oztopo zure helburuak lortzeko?

Ikastetxeko ikuspegi ekosozialak erraztu egin du mota honetako jarduerak martxan jartzea. Izan ere, hausnarketarako gaitasuna, jakin-mina eta ikasteko zein komunikatzeko gaitasuna duten pertsonen garapenari laguntzen dio. Ikasleek euren burua izaki sozial eta solidariotzat har dezaten laguntzen du, inguratzen dituzten gizarte-kontraesanen aniztasunaz jabetzen direnak eta prest daudenak horiek ekitate-, justizia- eta askatasun-printzipioekin lantzen ikasteko. Azkenik, hezkuntza zentrotik agerian jarri nahi da izaki ekodependenteak garela, errespetatu beharreko lege natural batzuek sostengatzen duten planeta bateko biztanleak.

Zein ikasbide eta erronka atera ditut?

Jardueraren ostean lortutako ikaspen nagusia taldeak bere burua antolatzeko duen ahalmena da.

Erronkei dagokionez, nabarmentzekoa da aipatutako proposamenak garatzeko dagoen denbora: askotan tutoretza-orduetara mugatzen da eta ez zaie ematen gainontzeko ikasgaietan daukaten garrantzia. Taldearen autoantolaketa eta ezagutzaren eraikuntza kolektiboa eman daitezen denborak eta espazioak behar dira.



Esperientziaren preStaketan eta gauzatzean parte hartu duten pertsonak edo erakundeak

DBHko 2. mailako tutoreen laguntza eta parte-hartzea ezinbestekoa izan zen jardueraren garapenerako. Aipatutako saioa eskola-orduetan egin zen eta euren ikasleei ikasgeletatik irteteko aukera eman zieten azterna soziohidrikoari buruzko standa ikustatu ahal izateko.

Bestalde, InteRed Fundazioaren babesa, espazioak eman dizkiguna gure sistemari eta gure kontsumitzeko moduari buruz modu kolektiboan hausnartzeko eta jardueraren diseinuan lagundu diena ikasleei zein irakasleei.

Oinarrizko/ Erreferentziazko baliabideak edo materialak

Jardunbide egokien gida: Bizitza zaintzen ikastea. Ikasgeletatik eko- eta interdependentziaren balioa azpimarratzeko hezkuntza-jardunbideak
<https://www.intered.org/es/recursos/aprender-cuidar-la-vida>

